

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Yurramendi Larburu

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1922-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Urnietako Trankatx izeneko baserrian jaio zen. Bere garaian errota izan zen Trankatx eta makinariak ateratzen zuen soinua zela-eta jarri zioten herrian izen hori baserriari. Aita eta ama urnietarrak zituen eta bera ere bertan bizi izan da beti. Donostian bolada batez harrobi batean lan egin bazuen ere, baserritik eta errotatik atera izan du beti bizimodua aurrera. Emaztea ere urnietarra hartu zuen.

Zintak

URN-033

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-09-14
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. "Laka", errotariaren soldata

- **Erref:** URN-033/002
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:01:27. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Trankatx baserrian jaio zen. Baserri txikia zen. Errota ere bazen. Astoarekin etortzen zen jendea ialde guztietatik. "Laka" kentzen zitzaion zorro bakoitzari, % 10, ordain gisa. Ez zuten dirutan kobratzen.

2. Isuna garia ehotzeagatik

- **Erref:** URN-033/004
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Trankatx ere itxi zuten gerra ostean. Beasain aldean, berriz, libre ziren errotrak. Eurak trenez joaten ziren hara. Baina gauez tranpetan jarduten zuten ehotzen. Behin guardia zibilak harrapatu eta isuna ordaindu zuten.</p>

Transkripzioa

-Gerra aurrian ta, gerra garaian ta, gerra ondorena ere ez zen ba...
 -Bai, bai, gerra ondorenan'e gero denboa askuan.
 -Hemengo errota batzuk itxi egin zituela aittua dakat nik. Trankatx itxi al zuten?
 -Itxi zuen, bai.
 -Ze pasa zan ordun?
 -Ze pasa... Ez dakit nik. Ta Beasaiñen ta hoitan han libre zan errota. Ta gu jun izandu gea, etxian errota ta, ta hartu artua ta zea, Beasaiñea; iriñan billa, trenian.
 -Zuek ere bai?
 -Bai, joan izandu gea gu're, bai.
 -Ez al zegon martxan jartzeik hemengo makinaria?
 -Bai, gero gabian aitzen giñen bai, tranpetan aitzen giñen.
 -Baiño bijilantzia ere izango zan hemen inguruan.
 -Bai. Gariya ez zan igotzia libre; garia igotzen gendun guk.
 -A bai, e?
 -Bai. Ta batian harrapatu ta multa bat pagatu gendun. Guarzibillak etorri ta harrapatu ta multa pagatu gendun.

3. Taloa eta ogi klaseak

- **Erref:** URN-033/005
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:08:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Artoa zein garia, biak ehotzen zituzten. Artoa gehiago ehotzen zen garia baino, taloa jaten baitzen orduan. Ogi klaseak. Orduan ogi zaharra jaten zen, lehor-lehor egindakoa.</p>

Transkripzioa

-Garia egiten zen orduan hemen?
 -Bai, gariya puxkat eitten zan.
 -Haren lana eta artoarena diferenteak izango dira?
 -Bai, diferentia.
 -Nola egiten zen akordatzen zara zu?
 -Bueno, hura ere igual-igual, artua bezela eiten zan hura ere. Artua eitten zan harriin, azpiyan harriya ta gaiñekua bueltaka ibiltzen zan. Ta han itten zan, arto-iriña bezela gari-iriña ere igual eitten zan.
 -Zeiñena zan estimatuagoa, artuana ala gariana?
 -Zeana, artuana askoz'e; talua ordun..., ogi gutxi zan, talua jaten zan ordun. Talua.

-Talua esniakin edo, urdai gizenakin edo...
-Zeakin ere bai, beste jakiakin ere. Bueno, ogiya ere izaten zan baiño ogiya, ez oaingo bezelako ogiya. "Hiruko Ogiya" esaten zan. Hiruko Ogiya zan hiru librakua. Ta seiko ogiya izaten zan, berriz, hiru kilokua. Ta hola koskorrak izaten zittun. Sei koskor bueltan. Ta dana mami hutsa. Ta hua jan bihar... Oain ezta... ez luke... Oain eguneroko ogiya berriya bihar izaten da. Ordun... Ogiya zahar-zaharra jaten zan. Ta geo talua zeakin... Esniakin eta. Ogiik ez zanian talua ta hola.

4. Harria ondo pikatu behar irin ona egiteko

- **Erref:** URN-033/007
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Trankatx eta Errotaberri ziren Urnietako errotak, baina jendeak Trankatxera nahi izaten zuen. Harria ondo pikatuta eduki behar da irin ona egiteko. Oartzuar bat ibiltzen zen harri pikatzen. Oso artetsua ei zen. Harria pikatzeko tresnez. Bi harriak berdin pikatzen dira. Lan zaila omen da oso.

5. Harriak artorik gabe geratzea, arriskutsua

- **Erref:** URN-033/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Urak nola mugitzen duen errotarria. Artoa aska batetik erortzen da harrietara. Artorik gabe geratzen zenean tak! hotsak ugaritu egiten dira eta harriak gastatu egiten dira. Kontuz ibili behar.

6. Zenbat eta leunagoa hobea arto-irina

- **Erref:** URN-033/010
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Artoak iharra egon behar du, bestela itsatsi egiten da. Haziendentzako pixka bat larriagoa eginda ere berdintsu izaten zen. Baina zenbat eta leunagoa, hobea jateko. Bahean pasatzen zen gero.</p>

Transkripzioa

-Artuak bihar zun, iarra bihar zun. Arto..., sorotik bildu eta artua motela baldin bazeon harrekin ez zeon iriñik eiteik. Hua bota ta geo ra-ra-ra ta, harriya bueltaka, peatu, osterata errota altxa ta ikeragarri lantegi txarra

izaten zan. Artuak bihar du iar-iarra iriña itteko.
-Ta haziendentzako eta pertsonentzako igual eihotzen al zen artua?
-Bai, igual-igual. Bueno, haziendantzako puxkat larrixeo inda ere igual izaten zan, baiño zenbat eta leunao ein hua ta hobia jateko. Ta gero izaten zan gaiñea, izaten zan hua zean bahiyan pasa, bahiya, hola bii eskuak hartu ta ra-ra... Bahiyan pasa, gaiñian zahia geratzen zan eta hua geratzen zan iriña pin-piña. Gero harrekin taluak itten zien.
- Gaiñian gelditzen zen zahia zerbaitetarako ba al zen?
-Behientzat, txekorrentzat edo. Baiño txekorrei ematen zaienian, 'orria' (orea) esaten zan. Masa ein, pelotak ein... Baiño hua, hua ez zan pasa biharrik izaten bahiyan, talua jateko bakarrik bahiyan pasatzen zan.

7. Urnietatik Donostiara saltzera

- **Erref:** URN-033/011
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:16:24. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Bere denbora guztian Donostiara joan dira esnearekin eta barazkiekin, trenean. Jende asko joaten zen eta hamar minutu behar izaten zituen gutxienez trenak abiatzeko. Donostiako geltokian karretero batek gurdian hartu eta gizonak berak tiratuta eramaten zuen jeneroa San Martin plazara. Buruan ere eramaten zuten karga.

8. Oinutsik lanean

- **Erref:** URN-033/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Hanka hutsik ibiltzen ziren. Aitak bost marmita eramaten omen zituen oinutsik. Segan ere oinutsik. Kailuak egiten ziren hankapean eta minik ez. Gusturago ibiltzen ziren horrela.</p>

Transkripzioa

- Mutil koskorra ta zea, hankutsik juten giñan gu! Gure aitak bost marmita aixe eamaten zittun hankutsik.
- Hankutsik...
- Gu hankutsik ibiltzen giñan segan eta. Ia egun erdia baiño gehio hankutsik pasatzen gendun guk. Hoixe ohittuta, orduan zea, azkazalak...; harri koskorak min eman? Oain, berriz, hemendik abittu horrea, ta, joe! Ezin zeatu. Ordun jartzen zien hanka azpik kalluak, joe!
- Eta hankutsik zeatik zen? Ez zenduelako zapatillaik edo...
- Aixe, gustoa ibiltzen zalako.
- Bai?

- Bai. Segaa jun, ni makiña bat bider segaa ta. Agg!, enbarazu eiten du ta bota baztarrea ta hankautsik. Askotan, e. Oain negun, negun zea, ordun ez, negun hankutsik ez zeon ibiltzeik, hotz izaten zan eta.

9. Erdaraz ez jakitea arazo nagusia Donostiara saltzera joandakoan

- **Erref:** URN-033/013
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:22:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Arreba edo emaztea joaten ziren Donostiara. Bera ere bai, emazteak umea izaten zuenean. Emakumeen lana zen gehienbat. Ez zen lan txarra, baina erdaraz ez jakitea zen arazoa Donostiara saltzera joandakoan.

10. Probintzien izenak gogoan

- **Erref:** URN-033/018
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Gutxi ikasi zuen eskolan. Buru txarrekoa zen. Hala ere gogoan ditu probintzien izenak. Hainbat esaten ditu.</p>

Transkripzioa

-Zu eskolan ibili zifan Urnietan?

-Bai.

-Eta zer ikasi zenuen eskolan?

-[Nik pixkat] eskolan. Buru txarrekoa nintzan ni. Anaia zaharrena hua omen zan pizkorra, esaten zuen, buru onekua. Nik puxkat ikasi nun. Oaindik goguan dazkat orduan ikasitakuak. Nola esaten da? Andaluzian nola probintzik-eta nola dittu? Hoik danak goguan dazkat nik. Zortzi probintzi: Granada, Málaga, Almería, Jaén Córdoba, Sevilla, Cádiz, Huelva. Cataluña eta Galiziak eta.

-Ilobak parra egiten du.

- (barre). Nik hoik danak badakizkit. Hoi, eskolan txikitan ikasitakuak hoik danak goguan dazkat. Bai.

-Ta Espainiako geografia ikasten zenuten?

-Bai, bai. Cataluña... Itxoin: Barcelona, Tarragona, Lérida y Gerona. Bestia Galiziyak... Coruña, Lugo, Orense y Pontevedra.

-Hoiek ondo ikasita daude, e...

-Hoik danak goguan dazkat.

11. Maisu gaiztoa

- **Erref:** URN-033/019

- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maisu oso gaiztoa zuten. Arrautza jaten ikusten zuten eta inbidiatan egoten ziren ikasleak. Makilaz ematen zieten. Ez zen gaiztakeria handia egin behar zigortua izateko.

12. Gerra hasiera Urnietan

- **Erref:** URN-033/023
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:36:36. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gogoan du Urnietara gerra heldu zen eguna; jaiegun batez herri aldetik soldadu talde bat sartu zen. Etxera etorri, sabaiko belarra ukuilura ekarri eta haren gainean egin zuten lo: ofizialek logeletan; eta baserrikoek, ahal zen bezala, lurrean. Zortzi egun pasatu zituzten. Arrantxoa nola prestatzen zuten. Hildakoak eta bonbak.</p>

13. Bi fronteak Urnieta aldean

- **Erref:** URN-033/024
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gailegoak omen ziren soldaduak. Cara al Sol kantatzen zuten. 14 urte zituen orduan. Bera baino bi urte zaharragoak gerrara joan ziren geroago. "Gorriak" Santa Barbara aldean eta frankistak Urnietako mendietan zeuden.</p>

14. Hainbat fusilatu Urnietan

- **Erref:** URN-033/025
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:42:07. **Bukatu:** 00:44:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Hainbat fusilatu izan ziren Urnietan, dozena bat inguru, aita-semeak tartean.

Ezinikusi handia zegoen nazionalisten eta karlisten artean. Orain horrela da, eta lehen ere bai. Frankistek herri bat hartzen zutenean, festa izaten zen herrian eta sekulako jende pilak biltzen ziren.

15. Harrobian lanean

- **Erref:** URN-033/030
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Etxean egin du lana. Harrobian ere ibilia da Donostian urtebetez. Lan gogorra zen, kamioiak kargatzen, borraz harria apurtzen...</p>

Transkripzioa

-Joxe Mari, zu zertan ibili zea lanian. Hamabi urtetan eskolatikan atea ta ze ibili ziñan, etxian lanian edo basoan nunbait ibili ziñan edo...
-Etxian lanian. Harrobin'e Donostin aittu giñan bai hor zean..., Monpásen, harrobin. Hango harri [ateratzeko] trenian. Zera eitteko, [eskailera?] eiteko. Ta nausi hura zein zan? Harrek kiebra ein zun. Bukatu gabe utzi zun harrek. Ezin zat goatu oain.
-Zenbat urtekin jun ziñan harrobira?
-Ba zean... Ni hogeitabost urtekin ezkondu nintzan eta tarti hortantxe. Urtebete edo hola pasatu nun nik han.
-Ta hango lana nolakua zan?
-Hango lana gogorra, zeakin... Kamio kargatzen'e bai; eta borraikin harrik txikitu ta... Lan goorra.
-Etxian hobeto...
-Bai, bai. Etxian hobeto.

16. Emaztea Donostiara saltzera hirurogeitaka urtez

- **Erref:** URN-033/031
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:52:16. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Baserritik bizi izan da. Emaztea hirurogeitaka urtez joan da Donostiara saltzera.</p>

Transkripzioa

-Beste nonbait'e ibili zea lanian nozbaitte?
-Ez.
-Baserritik bizittu zea?
-Bai, bai, baserritik.
-San Martinera merkatura junda eta, berdura salduz eta...
-Hoi familia izaten genduanian, beste gaiñekuan beti andria. Zenbat urtian jun ote da Donostia nere andria! Bueno. Oain larogeitazazpi. Hogeit urte

kendu eta hirurogeitazazpi urtian bai Donostia; aixe. Hogei urte baiño lehenaotik hasi zan gaiñea Donostia. Han bere basarritiken. Ta geroztik egunero Donostia.

-Andria zer zan, Hernanikua?

-Ez, Urnietakua. Latxe. Hor sagardoteia nola do? Iguarain, harren ondokua.

17. Tolosatik gora euskara aldatzen da pixka bat

- **Erref:** URN-033/033
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:54:02. **Bukatu:** 00:56:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Azkeneko urteetan ikasi du erdara apur bat; soldadutzara joan zenean ez zekien batere. Tolosatik gora hasten da euskara apur bat aldatzen. Oiartzun aldean ere ezberdina da.

18. Urnietako Trankatx errotako irudiak

- **Erref:** URN-033/036
- **Iraupena:** 0:06:28. **Hasi:** 00:58:32. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Errotaren irudiak. Hainbat azalpen. Pisuak, alearen aska, errotarriak, astoa lotzeko tokia. Trankatx zergatik deitzen den.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com